

Zentro eta zerbitzuak aldez aurretik baimentzea lortzeko aurkeztu beharreko agiriak

Zentro eta zerbitzuentzat:

- Eskaera eredu, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria.
- Ordezkaria dela egiaztatzen duen agiria (pertsoneko kasuan, eraketa aktaren, dagozkion estatutuen eta eskatzen den baimenaren inguruan legalki adostutako akordioen ziurtagirien kopia).
- Gauzatu beharreko jardura azaltzen duen memoria, helburu orokor eta espezifikoak, esku-hartze programak, erabiltzaileen profila, zerbitzu edo zentroak dituen baliabide materialak eta giza baliabideak eta aurreikusitako edukiera aipatuz.

Zentroentzat, aurrekoaz gain:

- Oinplano berriko egituren, eraberritzeen edo handiagotzeen kasuan, gauzatzeko proiektu teknikoa, behar bezala onetsita. Gainerako kasuetan, ezaugarri fisikoak deskribatzen dituen memoria. Azken horretan, aplikatu dakizkiokeen araudiak errespetatzen dituela egiaztatu beharko da eta dagozkion plano teknikoak gehitu beharko zaizkio.
- Beste kasu batzuetarako (plazak obrarik gabe gutxitzea edo obrak egitea eskatzen ez duen beste edozein aldaketa): jarduketak deskribatzen eta behar bezala arrazoitzen dituen memoria.
- Ekipamendu proiektua (jardueraren azalpen memorian sartuta egon daiteke, eta horrelakoetan ez da berriro aurkeztu behar).
- Jada existitzen ziren zentroetan aldaketa garrantzitsuak egin behar diren kasuetan, hori arrazoitzen duen txosten bat ere aurkeztu beharko da.